

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Udal katalogoa aldatzeko espediente, Retesuso auzoko 14 zenbakiko baserria (Erretes Lanteno, 6 poligoa, 851 lurzatia) katalogo horretatik kanpo uzteko

Aiarako korporazioak, 2025eko urriaren 23an balio osoz egindako ohiko bilkuran, erabaki hau hartu du:

Lehenengoa. Adieraztea iraungi egin direla Udal katalogoa aldatzeko espediente, Retesuso 14 zenbakiko baserria (Lanteno, 6 poligoa, 851 lurzatia) katalogo horretatik kanpo uztekoa, eta auri egoeraren adierazpen espediente, biak 2025eko urtarrilaren 23ko osoko bilkurako erabaki bidez abiaraziak.

Bigarrena. Hasiera ematea udal katalogoa aldatzeko espediente berri bati, Retesuso auzoko 14 zenbakiko baserria (Lanteno, 6 poligonoa, 851 lurzatia) katalogo horretatik kanpo uzteko. Baserriaren auri egoera fisikoa berreskurazina da, ia osorik erorita baitago; izan ere, kanpoko horma batzuen hondarrak altuera erdian baino ez dira geratzen, eta ezin da bereizi jatorrizko bolumetria zein den. Horrez gain, eraikinak ez du interes arkitektoniko, historiko eta funtzionalik.

Eta bateratutzat jotzea kultura ondarearen arloan eskumena duten Eusko Jaurlaritzako sailak 2025eko otsailaren 17an eta Foru Aldundiko sailak 2025eko martxoaren 27an aurreko espedientearen egindako txostenak.

Espediente jendaurrean jartzea eta interesdunei entzunaldia ematea hogeita hamar egun balioduneko epean, ALHAOn iragarki bat argitaratuz eta jabeari zuzenean jakinaraziz, erreklamazioak edo iradokizunak aurkez ditzan.

Eta jendaurrean jartzeko epea igarota, espediente korporazio honetako udalbatzari bidaltzea, katalogotik kanpo uzteko ebazpena eman dezan eta erabaki hau Arabako Lurralde Historikoko hirigintza plangintzaren erregistrora bidal dezan, katalogotik kanpo geratu dela jakinarazteko. Halaber, erabaki hau plan orokorra idatzi zuen taldeari idatzi duen taldeari jakinaraztea, eraikina katalogotik kanpo utzi dela jakin dezan.

Hirugarrena. Hasiera ematea Retesuso auzoko 14 zenbakiko baserriaren (Erretes Lanteno, 6 poligoa, 851 lurzatia) auri adierazpenaren espediente berri bati. Baserri hori udal babeseko ondasun higiezin da, ia erabat eraitsita dagoelako; izan ere, kanpoko horma batzuen hondarrak altuera erdian baino ez dira geratzen, eta ezin da bereizi jatorrizko bolumetria zein den.

Eta espedienteari gehitzea, 2024ko azaroaren 14ko txostenaz gain, 2025eko martxoaren 26koa eta 2025eko irailaren 15ekoa.

Jabeari eta interesdunei 15 eguneko epea ematea egokitzen jotzen dituzten alegazioak egiteko.

Jakinaraztea ezen, emandako epean alegaziorik aurkezten ez bada, aurria ebatziko dela eta pertsonen eta ondasunen kalterik ez eragiteko behar diren neurriak ezarriko direla. Horretarako, 14. zenbakiko baserriaren jabeari eskatuko zaio bi aukera hauen artean erabakitzeak: baserria erabat birgaitu edo hondakinak erabat eraitsi. Horretarako, hilabeteko epea izango du, dagokion ebazpena jakinarazten denetik aurrera, teknikari eskudunak idatzitako eta haren elkargo profesionalak ikus-onetsitako birgaitze integraleko proiektu bat aurkezteko, edo, bestela, aipatutako epe berean, teknikari eskudunak sinatutako eta Arkitektoen Elkargoak ikus-onetsitako proiektua aurkezteko, zehazki eraikinen hondakinak erabat eraisteko, udal arkitektoaren 2025eko irailaren 15eko txostenean adierazitako ildotik. Proiektu horretan, 13 baserriarekin partekatutako

egiturazko elementuen jarduketa orokorra eta eraispen partziala definituko dira, bereziki, es-talkipeko solairuraino dauden harrizko harlangaitzezko karga hormak, kanpoaldekoak zein ba-rrualdekoak, zeinak eskatzen baitute ebaketa eta akabera egonkorra egitea harrizko izkina baten bidez edo horma horietan sartutako egurrezko habeak kentzea, helburu hauekin: egituraren segurtasuna bermatzea, lanek irauten duten bitartean bide publikoaren aurrean beharrezkoak diren segurtasun neurriak hartzea, eta obretan eta eraispenetan hondakinak erretiratzeari eta kudeatzeari buruz aplikatzekoa den araudia betetzen dela justifikatzea.

Laugarrena. Dekretu hau eta udaleko zerbitzu teknikoaren txostenaren kopia jakinaraztea Rete-susoko 14 eta 13 zenbakietako baserrien jabeei.

Eta Arartekoari jakinaraztea, salatzailea jakinarazitzat har dezan, 2023R-3189-23 prozedura.

Lehenengo apartatuaren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke alkate honi, hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, 2 hilabeteko epean.

Gainerako erabakien aurka ezin da inolako errekurtsorik jarri, izapide hutseko egintzak baitira.

Guztiekin jakin dezaten argitaratzen da.

Arespalditza, 2025eko urriaren 27a

Alkate-lehendakaria

PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRIA